

B

BARREN

TOKIKOM



ARNALDO ASKATU
POLITIKA ASKATU

EUSKAL HERRIAK POLITIKA
EGITEKO ESKUBIDEA

Makina-erreminta sektorean aitzindaria, Mondragon Taldeko partaide eta Elgoibarren kokatutako enpresak ondorengoak behar ditu:

MUNTATZAILE MEKANIKOAK (Erref.0.500)

Eskatuko da:

- Lanbide Heziketa II Mekanizatu bidezko produzioa edo Industria Ekipoen mantenimendu edo muntaketa goi mailako zikloa
- Hizkuntzak: ingelese eta euskara
- Bidaiatzeko prest egotea

Baloratuko da:

- Muntaketa mekanikoetan esperientzia
- Ohiko makina-erremintak manejatzen esperientzia
- CNC bidezko makinak manejatzen eta programatzen esperientzia

HORNIKUNTZA TEKNIKARIA (Erref.0.502)

Eskatuko da:

- Goi mailako formazio zikloa, Goi mailako Ingeniaritza edo Teknikoa
- Hizkuntzak: ingelesez eta euskaraz ondo jakitea.
- Beste hizkuntza batzuek jakitea baloratuko da
- Bidaiatzeko prest egotea
- Komunikatzeko eta negoziaketetarako gaitasuna
- Taldean lan egitea
- Proaktibo izatea

EROSKETA ARLOKO TEKNIKARIA (Erref.0.501)

Eskatuko da:

- Ingeniaritzako ikasketak, goi mailakoak edo ertainak
- Hizkuntzak: ingelesez eta euskaraz ondo jakitea
- Beste hizkuntza batzuek jakitea baloratuko da
- Bidaiatzeko prest egotea
- Komunikatu eta negoziatzeko gaitasuna izatea
- Talde lanean jardutea
- Proaktibo izatea

PROIEKTUGILE MEKANIKOA (Erref.0.503)

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoa
- Diseinatzaile mekanikoa 3Dtan
- Esperientzia makinak diseinatzen
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz
- Mekanizotua eta muntaketa lanetako ezagupenak eta esperientzia ere baloratuko dira



Eskaintzen da: Antolakuntza industrial sendoaren parte izateko eta promoziorako aukera. Interesatuak bidali curriculum dagokion erreferentzia adieraziz hurrengo posta helbidera (Giza Balia bidezko departamendua, 28 PK.- 20870 ELGOIBAR) edo helbide elektronikoa honetara: gb@danobat.com.



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



Andres
Alberdi

Larunbat goiza duk, Angel, eta oraindik ez zekiat Gorenak zer esango duen BILDURI buruz. Horren harira, ordea, txinatar ipuin baten oihartzuna zerbilkiat buruan.

Gudu batean hildako gerlari adoretu bat zeruaren atarian aurkitu omen zuan. Beste gerlaririk ez inguruan, bera bakarrik leku hartan. Gizon batekin egin zian topo han, eta

hark esan omen zioan besteak infernuan zeudela. Gerlariak infernua ikusi nahi-eta, han joan zituan hara. Atea ireki, eta barruan zirela, mahai bat, eta mahaiaren gainean katilukada arroza egosi berria ikusi zitian. Bazuan jendea mahai inguruan, baina denak hezur eta azal omen zeudean, ahituta, goibel. Haietako bakoitzak bi metro luzeko zotzak zitian, eta zotzekin baino ezin zitean jan arroza, eta zotzak hain luzeak zirenez, ezin zitean ahora eraman. Goseak amorratzen denak.

“Bildu egiten zirela, eta horregatik zirela zoriontsu eta indartsu”

Hura ikusita, zerua ikusi nahi zuela adierazi zioan gizonari. Harritu egin zuan, han ere, infernuan bezalako mahaiak eta katilukada arrozak ikustean. Mahaiaren inguruan jende asko zegoan eserita, bi metroko zotzekin haiek ere.

--*Infernuaren berdin-berdina da!*, gerlariak

--*Ez duzu desberdintasunik ikusten?*, gizonak.

Bai, bazegoan alderik. Jende hura ez zegoan triste, ezta hezur eta azal huts ere. Osasuntsu eta kontentu ziruditean. Nola zitekeen?

Zeruan zeudenak bakoitzak beretzat ahal zuen arroz gehiena hartu beharrean, batak besteari ematen zioan. Zotzak luzeegiak baldin baziren ere norberaren ahora heltzeko, ez zituan luzeegiak besteei jaten emateko. Zerua eta infernua berdina zioan. Bakarrik zeruan elkartu, bildu egiten zirela, eta horregatik zirela zoriontsu eta indartsu.



Anjel
Ugarteburu

Mundiala, Andres, ipuin txinatar hori! Euskaldunontzat aproposa. Txinatar denda handietan ere egongo dozak, ziur, gure gatazkak konpontzeko moduko zotzak. Aspaldi entzuna jaukat euskaldunon ezpainetatik *mekauen zotz!*, gustuko ez dena pasatu eta gero. Handiegia delako, txikiegia delako edo zozketa batean zotz barik geratu zarela adierazteko balio jok, ez?

La hozpera! dok, gure artean entzuten den beste hitz larri bat eta horrexen inguruan joiak hurrengo hau.

“Joxinixio eta Joxedomingo musean jokatzeko trebe ziotuan, eta bapo bazkaldu eta gero horretan pasatzen juen arratsaldea, epeletan suntuondoa, biak ere hozperak ziotuan eta. Hil dok, halako batean Joxinixio eta triste geratu Joxedomingo, jokorako lagunik barik. Jan ere ez, penaren penaz.

Hil dok Joxedomingo ere handik hilabetera, eta bajoiak zeruko atera. Joxinixio han den preguntau jok atean eta San Pedrok azalpenak emon behar : - *Ez jagok hemen, hotzak zegoela eta inperura joan zuan*”.

Inperuko atea jo jittuk Joxinixioren bila, eta deabrukumeak zabaldu atea, bere buztan, adar eta guzti. Sardia ere bai eskuetan. Ez dok horregatik beldurtu eta bere lagunaz galdetu jok: -*Hemen al jagok Joxinixio? Orain dela hilabete bat etorri ei zuan hona zerutik, han hotzak zegoela eta*. Deabrukumearen erantzuna baino lehen heldu jakuan Joxinixioren kexua barrutik: - *Itxi ate hori, korrientia jagok eta!*

“Mundiala, Andres, ipuin txinatar hori! Euskaldunontzat aproposa”

Zain aurkitu jua hantxe, epeletan, eta ez argal eta errukari, jokorako prest baino” *Mekauen zotz!* Gu euskaldunok *la hozpera* gaituk, gero!

I. URTEURRENA

SANTOS LIZARRITURRI ARRIETA


2010eko maiatzaren 5ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



Gaurtik aurrera, tarte berezia eskainiko diegu maiatzaren 22an egitekoak diren Udal eta Foru Hauteskundeei. Gaur hasi eta hurrengo bi asteetan, Elgoibarko eta Mendaroko alkategaiek BARRENEK egindako galderei idatziz emandako erantzunak argitaratuko ditugu. Paperezko edizioan, elkarrizketak laburtu egin behar izan ditugu kasu batzutan, alkategai guztiei tarte bera eskaini aldera, baina erantzunak bere osoan argitaratuko ditugu www.elgoiBARREN.net webgunean. Lehenengo ale honetan Elgoibarko alkategaiekin hasiko gara, eta hurrengoan Elgoibarkoei ez ezik Mendaroko alkatezarako hautagaiei ere egingo diegu lekua. PSE-EEko eta PPko hautagaien erantzunak eta Elgoibarko Ezker Batuko alkategaiaren erantzunak erredakzioan itzuli ditugu.

1. Legealdi hau bukatzeaz dago. Zein da egiten duzuen balorazioa? Aurrekoek egindako zer ez zenukete egingo?
2. Zer da alkatetza lortuz gero egingo duzun aurreneko gauza?
3. Zelako udal gobernu aurreikusten duzu hurrengo lau urteetarako?
4. Ausartuko al zinateke zure alderdiak zehaztutakotik urruntzen, herriaren mesederako balitz?
5. Etxebizitza politikari dagokionean zein bide jarraituko duzue?



Herritarrak botoa ematen, duela lau urteko hauteskundeetan.



ALFREDO ETXEBERRIA
EAJ

“Udal gobernu sendo bat osatzeko lanei lehentasuna eman beharko zaie”

1. Udalak 2004-2010 urteen bitartean izan duen bilakaera ekonomiko eta finantzarioan zerikusi zuzena izan du ekonomiaren eta diru-bilketaren koiunturak izan duen joerak; baita koiuntura horren joeran 2009an gertatu den aldaketa sakonak ere. Hemen bertako eta kanpoko baliabideak erabili izan dira, inbertsioak egin ahal izateko. GFAK, Jauriritzak eta Estatuak eman dizkiguten kanpoko baliabideei esker, gainera, Udalaren zorpetze maila ahalik eta txikiena izatea lortu dugu. Inbertsio horiei esker, Udala eraberritu egin da, eta hirigintzan, ekipamenduetan eta herritarrentzako zerbitzuetan zeuden oinarriko beharriak ase dira.

Udalan ordezkarri politiko guztien artean Legealdiko Plana egiteko konpromisoa hartu izana beharrezkoa izan zen proiektu aitzindari bati ekiteko, eta egonkortasuna ekarri du. Era berean, Legealdiko Plana tresna egokia izan da legealdiko gastu guztia planifikatzeko eta aurreikusita zeuden sarrerekin erkatzeko.

Aipatzekoa da inbertsioak herri guztian barrena egin izana. Itxaropena dakarkiguten proiektuak ere badira, hala nola, abian diren Pilarreko egoitza berria, Elgoibar Berdea, eta ingurumena errespetatuko duen pertsonen eta salgaien mugikortasuna. Bestalde, sail berriak ere sortu dira, esaterako, enplegua eta prestakuntza, eta berdintasuna. Halaber, herritarrekiko arreta arintzeko eta optimizatzeko tresna berriak ere baditugu erabilgarri.

2. Alkatetza eskuratzea azken lau urteetako lan eta honen emaitzen errekonozimendua dela ere ulertu behar da, gero ospatu beharko dugu. Udal gobernu sendo bat osatzeko lanei lehentasuna eman beharko zaie, herriaren kudeaketarekin jarraitzearekin bat.

3. Oraindik ez dakigu osotasunean zein izango diren herritarrek botoa emateko edukiko dituzten aukerak. Herritarrek aukerak osotasunean izango ditugun itxaropenarekin eta bukatze dagoen legealdi honetan Legealdi Planak emaitza onak eman dituzenez, hurren-

go legealdian, berriz ere alderdi guztien artean adostutako Legealdiko Plangintza batean oinarrituko ditugu eginbeharrak eta ardurak.

4. Siglen edo alderdi politikoen garrantzia ezinbestekoa da, baina desberdintasuna dago herri eta aberri politikaren artean. Herrigintza herri kudeaketa da. Herritarren beharrak ezagutu eta horiei erantzun zuzena ematea, baina herriak ez dira isolatuak bizi eta alderdi politikoei bizitzeko eta aberria ulertzeko modu ezberdina erakusten digute. Alderdiaren parte naizenez, bai alderdiarekin eta bai zinegotzi taldearekin herrigintzari dagokionean, alderdia da herritarren esanetara gerturatzen ahalegintzen garena.

5. Lurzoruaren eskuragarritasuna bermatu nahi dugu, etxeak arrazoizko prezioan eta laguntza-erregimenean gaitzeko. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzeak aukera emango du etxebizitza tasatua eta babestua berehala gauzatu ahal izateko, lurra lortzeko.



OVIDIO CAMPELLO
PSE-EE

“Bildurekin gertatzen denak eragina izango du udal gobernuan”

1. Amaitze dagoen legealdiari buruzko balorazio positiboa egiten dugu. Krisia sakondu den arren, herriak hobera egin du: merkadilloa erdigunera itzuli da, ongizatean aurrerapausoak eman dira, adinekoentzako egoitza berria definituta dago, auzoetan hobekuntzak egin dira, gazteentzako zerbitzu gehiago dago, Berdintasun Batzordea sortu eta genero indarkeriaren kontrako kontzientzia eragin da, kirol instalazioak handitu eta hobetu dira,

babes ofizialeko etxebizitza gehiago erai-ki dira, terrorismoaren biktimek merezitako omenaldia jaso dute, Andikanoko bide gorria amaituta dago, Mahai Sektoriala martxan da eta proiektuak sortzen ari da, herriko baranda guztiak aldatu dira, kaleak eta parkeak nabarmen hobetu dira, herriaren goiko aldean dauden auzoetarako eskailera mekanikoak edo igogailua ditugu, Sigmako errotonda amaituta dago... Azken batean, guztion artean zerbi-

tzu hobeak dituen herri politagoa egiten ari gara.

2. Lehenengo erabakia Elgoibarren alde lanean jarraitzea izango litzateke. Gizarte eragile guztiekin eta Udalan dauden alderdi politikoen guztiekin hitz egingo nuke; elgoibartarrei entzungo nieke, udaletxeko langileei, sindikatuei, enpresariei, ikastetxeei, jubilatuei, gazteei... elkarte guztiei, oro har. Garrantzitsuena ez da alkatea, baizik eta herritar guztiok gustura biziko garen herria eraikitzea.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



3. Hori ezin da jakin. Bildurekin gertatzen denak eragina izango du udal gobernuan.

4. Gure lemak dioen bezala: *Elgoibar da lehenengoa*. Seguru nago ez dudala nire alderdiaren kontra egin beharrik izango.

5. Garapen iraunkorra sustatuko dugu, klima aldaketaren kontrako politikak garatuz, ondasun naturalak babestuz eta gure herria antolatuz. Sozialistok herri-hiri bildua eratu nahi dugu, sakabanatutako hiria alde batera utzi eta auzoen giza-kohesioa bultzatuko dugu. Era berean, Udalak lurrak eta

eraikitze eskubideak eskura ditzan saiatuko gara, babestutako etxe gehiago eraiki daitezzen. Horrez gain, etxebizitza zaharrak berritzeko politika sustatuko dugu, eta horrela, gainera, enplegua sortuko dugu. Babes ofizialeko etxebizitzaren aldeko apustua egingo dugu, bereziki, alokairuko aldekoa. Sozialistok bizikletaren erabilpena proposatzen dugu: bizikletentzako bide eta ibilbide bereziak, seinalizazio egokia, aparkalekuak... Ingurumen hezkuntzari dagokionean, ingurua hobetzeko eta ingurumena

ezagutzeko guneak promozionatu nahi ditugu. Berdeguneak herriaren elementu klabeak dira, eta lorategiak eta parkeak zaindu egin behar dira. Era berean, energia garbiak sustatuko ditugu, eta azpiegitura eta gune publikoetan energia hobeto aprobetxatzearen aldeko apustua egingo dugu. Azkenik, zaborra bereizteko proiektuak garatzen jarraituko dugu. Era berean, Agenda 21 programa garatu eta herriko kaleak, plazak eta auzoak berritzearen aldekoak gara.



**JOSE LUIS IBARZABAL
BILDU**

“Herritarren hitza eta aniztasuna ordezkatu duen udal gobernu nahi dugu”

1. Bildu koalizioko partaideak oso egoera ezberdinean egon izan gara aurreko legealdian, eta horrek eragin handia du partaide bakoitzak egin dezakeen balorazioan. Edozein kasutan, balorazioa gazi-goza da. Oztopoak oztopo, harro gaude, batez ere guk kudeatu ditugun sailetan (Euskara eta Kultura) egindako lanaz eta lorturiko emaitzetaz. Gainera, herritar guztiak ordezkatuak izan ez diren aro batetik gatoz, eta hori iragana izatea da gure desioa. Aurrera begira argi daukaguna da elkarlana, indarra biltzea eta herritarrekin batera jardutea izango direla aldatetarako giltzak. Inolaz ere ez parte hartzeari oztopoak jartzea, itxieria, edota alderdikeria.

2. Alkatetza lortuz gero, hurrengo egunetik gogor hasiko ginatete lanean. Gure ibilbidetan esperientzia ezberdin asko bitztea tokatu zaigun arren, bai udaletxe barruan bai kanpoan, oraindik badaukagu zer ikasi, eta horri emango genioke lehentasuna.

Lehenik eta behin, eta hori oso argi daukagu, egoeraren argazki bat egingo genuke. Horretarako ezinbestekoa jotzen dugu Udala eta herritarren arteko zubiak eraikitzea, beste alderdien ikuspuntuak ezagutzeta eta proposamenak kontrastatzea eta Udaleko teknikari eta langileen eskarmetua eta iritziak biltzea, beraiek baitira udal politikaren bitarteko nagusienetakoak.

3. Herritarren hitza eta aniztasuna ordezkatu dituen udal gobernu nahi dugu.

Euskal Herria aldaketa aro baten aurrean dago, eta testuinguru hori Elgoibarren ere islatzea nahi dugu. Aldaketari, bai arlo sozialean eta baita politikoa ere, bide eman go dion udal gobernu da gure aukera. Bide horretan alderdi guztion elkarlanerako ateak zabalduko genituzke. Ziur gaude maiatzaren 22ko emaitzek posible egingo dutela norabide honetan pausoak ematea.

4. Bildu Elgoibar osatzen dugunak ibilbide desberdinetatik gatozen herritarrak gara,

alderdi eta jende esparru diferenteetakoak. Gure ekarpenik handienetakoa alderdikeria, pertsonalismo edo interes desberdinen gainetik, adostasun puntuak aurkitu eta biltzeko gaitasuna da, eta, ondorioz, gure erabakiak hartzeko modua taldelanean oinarrituko da.

5. Arlo guztietan beharrezkoa bada ere, hemen ezinbestekoa ikusten dugu jasangarritasunean oinarritutako arrazoizko irizpideak erabiltzea. Etxebizitzarako eskubidea bermatzeko ez da beharrezkoa herriko orube bakoitza eraikuntzaz betetzea.

Etxebizitza arloan, etxebizitza hutsen errola berriz egitea izango zen lehentasunetako bat, etxebizitza hutsen definizioa zehaztuz, eta alokairuan jartzeko neurri pizgarriak garatuz.

Udalaren etxebizitza politikan alokairuko etxebizitzaren sortzea lehentasunetako bat, alokairuko etxebizitza parke publiko sustatzea ondo legokelarik.



**JOANES RODRIGUEZ
ARALAR**

“Benetako Elgoibar Berdea eta bizi-bizixa nahi dugu”

1. Askotan errazena izaten da egindakoa kritikatzeko eta ahaztu egiten zaigu aldaketarik handiena geure buruan egin beharrekoa dela: autokritika. Hala ere, badira Udalean errotik aldatu beharreko gaiak. Guretzat, batez ere oposizio alderdia izanda, parte hartu ahal ez izatea izan da zailena. Ez gaizki ulertu: iritzia eman bai, baina Udaleko erabaki gehienak gobernuak hartutakoak izan dira, eta komisioko gehienak informatiboak. Koalizioan ere gorabeherak izan ditugu, baina guretzat, funtsezkoena, aurrera begiratzea da. Egindakoa eginda dago. Aire freskoa ekarri dugu; hori da garrantzitsua.

2. Ospatu! Benetan ospakizun handia inondik ere! Baina hurrengo egunean 8:00etarako udaletxera joango nintzateke eta aldaketa erradikalak nola egin aztertuko nuke, ez baita lan erraza egungo egoera aldatzea. Batek, politikoen soldaten azterketa eta jaisiera bideratu beharko litzatekeela uste dut, baita hirigintza plan orokorrean martxan jarri diren


hainbat obra gelditu ere. Gainera, benetako laguntza behar duten herritarren kasuak ere aztertu beharko lirateke. Garbi dago ezker abertzalean daukagun ikuspuntutik, Elgoibar ez dugula imajinatzen orain planteatuta dagoen bezala. Gauza gehiegi daude egiteko paragrafo batean laburtzeko.

3. Partehartzailea, anitza, euskalduna, gaztea, indartsua... Osoagoa eta demokratikoa, azken urteetan ez baikara ahots guztiak han egon eta egon garenen artean ere, lankidetzari handiagoko espero dut, az absolutismoa. Benetako Elgoibar Berdea eta bizi-bizixa nahi dugu.

4. Niretzako politika lanabes bat da, alderdiak bezala. Politika sigla batzuk baino gehiago da. Ni euskalduna naiz, abertzalea eta ezkerrekoa, eta nirekin bat egiten duen edonorekin hitz egiteko prest nago, beti ere, errespetutik eta era eraikitzailean. Hala ere, herritarren onurarako diren gauzekin ados egongo nintzateke. Seguruenik, planteatutako

moduarekin desados, baina ez helburuarekin. Esaterako: frontoia herrian? bai. Non? Hor dago benetako politikaren saltsa... adostasunak lortzean, beti ere, herritarren onurarako. Lana da egin behar dena.

5. Elgoibarren etxeak egon badaude, beraz, hasteko, ez dut zentzuzkoa ikusten berriak egitea (700 bat etxe hutsik daude). Bestalde, zaharberitze plan integral bat beharrezkoa dugu. Batetik, zaharrak dauden etxebizitzak berri, babes ofizialeko etxeak alokairuan jarri, alokairua herritarrei erraztu... Gainera, beste gai bat ere aztertu beharko litzateke; herriko hainbat tokitan bizi diren adinekoek irisgarritasun arazoak dituzte; eskailerak, urruneko auzoak, etxeen zabalera... beraz, adinekoentzako pisu espezifikoko beharko lirateke, eta trukean, hauen etxeak gazteei alokatu, zentzuzko prezioan. Azken finean, hirigunean bizitza sortu nahi badugu, gazte jendeak herrian egon behar du, eta ez Mendaron lotan eta Elgoibarren bizitza eginez.



**JUAN SANCHEZ VALLEJO
EZKER BATUA-BERDEAK**

“Beti baztertu izan ditut demagogia eta kanpainako promesak”

1. Ez naiz udal ordezkari izan bukatzen ari den legealdi honetan, eta beraz, ezin dut egindakoa gainera juzgu politikorik egin.

2. Udalaren diru-kontuak eta aurrekontua aztertu. Izan ere, aurrekontuak lagatzen duen neurrian bakarrik egin ahal izango nituzke inbertsioak, alkate izendatuz gero. Gure Udalak behar beste baliabide izango balitu (gauza benetan zaila krisi egoera honetan), gizarte eta osasun arloko hainbat proposamen

aurkeztuko nituzke, bereziki edadetuei eta gabezia handienak dituztenei begira. Gauza bat ez nuke sekula egingo (ez dut egin Eibarren zinegotzi izan naizen bi legealdietan eta hemen ere ez): agindu eta ez eman. Beti baztertu izan ditut demagogia eta hauteskunde kanpainako promesak.

3. Egoera politikoa nahasi honetan ez da erraza zer gertatuko den aurreikustea. Hala ere, iruditzen zait EAJ eta PSE-EEren

arteko udal gobernu bat osatuko dela. Elkarren beharra dute bi alderdiok, eta ziu-rrenik hauteskundeetako emaitzek horretarako bidea emango dute. Guk, Ezker Batuan, beti lehenetsi ditugu udal programak eta programetako edukiak, eta horretatik prest geundeke gure programako puntu garrantzitsuetan bat egiten duen beste edozein alderdirekin elkarlanean gobernatzeko.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



4. Ausartu bakarrik ez. Areago, ez nuke inongo arazorik izango hori egiteko. Ez nuke nire alderdiaren kontra egiteko arazorik izango, ni botoa eman digutenei zor natzaielako. Hori bai, herriaren interesak gure alderdiarenarekin uztartzen saiatuko nintzateke.

5. Lurzoru publikoaren kudeaketa fintzeko politikak sustatuko ditugu, babestutako etxebizitzak eraikitzeke. Etxebizitza planak sustatzeko orduan aintzat hartuko dugu herritarren parte-hartzea. Etxebizitza zaharrak berritzeko planak bultzatu eta alokairuko

etxebizitzen alde egingo dugu. Era berean, etxebizitza hutsen udal erregistro bat sortuko dugu, eta etxebizitza huts horiek merkaturatzeko %200eraino igoko dugu etxebizitza ondasunen gaineko zerga. Azkenik, Bizigune programarekin kolaboratuko dugu.



FRANCISCO JAVIER NUÑEZ
PP

“Alkatea denona da. Botoa eman diotenena eta eman ez diotenena”

1. Elgoibarko beste edozein langabetuk egingo lukeena: negatiboa. Besteek egin dutenetik zer ez nukeen errepikatuko? Besteak gutxiestea. Ez nuke herriak demokratikoki aukeratu duen hautagairik inoiz gutxietsiko. Alkatea denona da, botoa eman diotenena eta eman ez diotenena. Udal talde bat edota zinegotzi bat mespretxatzea eta gutxiestean (nerekin egin duten antzera) ez dira pertsona jakin bat edota pertsona horrek ordezkatzan dituen siglak gutxiesten ari, ezberdin pentsatzearen beste aukera politikoa bati botoa eman dioten herritarrak baizik.

Legealdi honetan, herritarrak engainatu dituzte elkarrenganako begirunea, errespetua, elkarrizketa eta akordioa bezalako promesekin, eta horrek asko esan nahi du horriengan izan daitekeen konfiantza mailaz. Nik ez nuke egingo. Nirekin berba egin nahi izan duen ororekin bildu naiz ni, eta nerekin

egon nahi izan duten guztiekin egon naiz.

2. Galdera zaila da, asko direlako Elgoibarrek behar dituen gauzak, eta bakarria aukeratzea oso zaila delako. Udala herritarrei zabalduko nieke, eta zabaldu esaten dudanean bere zentzu osoan ari naiz (gerturatu, zerbitzuak erraztu, gardentasuna...).

3. Elgoibarrek aurrera egiten jarraitu behar du, eta hori da udal gobernuek sustatu behar dutena, udal gobernu horren kolorea edozein dela ere. Orain arte moduan, oposiziotik udal gobernuari laguntzeko prest nago, eta berdín egingo dut udal gobernurako aukeratzan banaute ere. Azken batean Elgoibarrek aurrera egitea izan behar delako gure lehenengo helburua, gobernuan edozein dagoela ere.

4. Udalaren egunerokoa jarraitu duenak edo ni ezagutu nauenak badaki uneoro Elgoibarrentzat eta elgoibartarrentzat onena dena egiten ahalegindu naizela. Nire ideia,

printzipioak eta baloreak oinarri hartu izan ditut beti, ezin delako beste modu batean izan.

5. Gaur egun, euskal herritarren parte handi bati ez zaie bermatzen Konstituzioan jasotako etxebizitza duin baterako eskubidea. Horregatik, administrazio publikoen betebeharra da, tartean Elgoibarko Udalarena ere bai, behar beste etxebizitza eraikitzea. Eta bide hori da nik jarraituko dudana. Hirigintza Plan Orokorra garatuko dut, errenta apaleko gazteentzako alokairuko babestutako etxebizitzak eraiki ditzaten bultzatuko dut, eta etxebizitza zaharrak berritzeko laguntzak ematearen alde egingo dut. Horiek dira proposamenetako batzuk. Dena den, proposamen guztien berri izateko, hobe hauteskunde programa irakurtzea. Beste batzuek egiten ez duten arren, gurea herritar guztien eskura dagoelako.



Erretratu zaharra



1998

Aste honetako erretratua Gloria Odriak ekarri du BARRENEKO erredakziora. Parrokiako abesbatzako kideak azaltzen dira erretratuan, Santanderrera eginiko irteera batean. Abesbatzako kideek bazuten irteerak egiteko ohitura, eta egun honetan Isla herrian egin zuten bazkaria. Giro onean pasatu zuten eguna, eta pozik itzuli ziren etxera. Gogora ditzagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak.

Ezkerretik hasita: Maribel Oiarbide, Begoña Izagirre, Anton Zabaleta, Ana Mari Aranberri, ezezaguna (buruaren zati txiki bat ikusten zaio eta ezin izan dute gogoratu nor den), Mari Karmen Azkue, Maria Luisa Garrido, Gloria Odria, Rosa Riaño eta Mari Karmen Yudego.

*Aukera polita!
Baserria salgai
Sorluzen*

** 250 m² eraberrituta, 125 m² ko
bi etxebizitzaz egiteko aukera.*

*** Guztira 750 m² teulatupean.*

*** Teilatu guztiz berria.*

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDAKO UDALA



ARE ARE BI



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Horrenbesteko presa zertarako?

Epea pasatu zaie. Horrenbesteko prisa bazu-
tzen Lerun Txiki baserri ederra eraisteko zer-
gati ez dituzte hondakinak jaso Hirigintzak
emandako sei hilabeteko epearen barruan?
Denbora faltagatik ez da izan, noski, interes
ezagatik baizik.

Orain urte erdi lortu zuten benetan nahi zu-
tena: traba egiten ziena paretik kendu, badaez-
pada, Auzitegi Gorenak euren proiektua gera-
razi baino lehen. Lerun Txiki-Morterika paraje
paregabea salbatu nahi dugunon kontrako
mendekua izan zen.

Irregularitasun pila handi bat egin dute:

- Erortzeko zorian ez bazegoen ere, bota-
tzeko baimena eman zien Udalak.
- Segurtasun perimetrorik ez zuten jarri.
- Eskuz ateratzeko elementuak makinaz
apurtu zituzten.
- Obrako enkargatuak pertsona bati bultza
egin eta kamera kendu zion.
- Otsailean Udal arkitekтуak hiru edifizio or-
denazior kanto zeudela esan zion epailea-
ri LerunTxiki bota egin zutela aipatu ere
egin gabe. Beraz, gezurra esan zion, ordu-
rako bi besterik ez zirelako geratzen: Lerun
eta Lerun Nagusia.
- Apirilaren 1ean hondakinak jasotzeko
epea amaitu zitzaion.

Horrela zaintzen dute gure ondare histori-
ko-kulturala hemengo agintari politikoak. Ez di-
ra gai euren arauak betetzeko ere.

Okil beltzak

Javier Oñederra udaltzainburuari

Elgoibartar naizen aldetik lotsa eman zidan
aurreko ostiraleko eskutitza irakurtzeak (1.500
karaktere baino gehiago zituen, udaltzainburuak
herritar batek baino eskubide gehiago dituela di-
rudi BARREN astekarian). Ez nekielako Elgoibarko
eta herritarrentzako lan egiten duen udaletzeko
langile publiko batek idatzi zuen edo minberatua
zegoen herriko pertsona batek. Nabaritzen zen
eskutitzean kritikak jasotzea ez duzula atsegin,
baina gogoratu zeinentzako lan egiten duzun: el-
goibartarentzat, neu barne.

Ez daukat intenziorik zure jokoan sartzeko,
niganako akusazio eta gezurrak justifikatzen
hastea denbora galtzea litzatekeelako.

Nik idatzitako eskutitzeko ia galdera bat
bera ere ez duzu erantzun; bat zeharka aipa-
tzen duzu, eta horregatik idazten dut eskutitz
hau funtsean. Adieraziko dizkidazu Elgoibarko
udaltzainek "jarritako" eta erabiltzen dituzuen
irizpideak puntuz-puntu, errepideetako legeak
aplikatzerako orduan?

Uste dut interes handikoa izango dela ibil-
gailu baten edo batzuen jabe diren elgoibarta-
rrentzat irizpide horiek azaltzea.

Sinadura eskaera ([http://www.peticionpu-
blica.es/PeticaoVer.aspx?pi=P2011N8193](http://www.peticionpu-
blica.es/PeticaoVer.aspx?pi=P2011N8193)) si-
natu duen elgoibartar bakoitzaren euro eskas
baten truke ez dizut asko eskatzen, ez?

Honela, larunbatetan gaizki aparkatutako
ibilgailuetara, arazo serioak sortzen duten per-
tsonetara eta beste erantzukizun garrantzitsu-
goetara burubelarri dedikatu zaitezketek adibi-
dez, zeuen lana, denon artean, eraginkorragoa
eginez. Konponbide eskasa agian?

Jon Larrañaga

Esker onez

Arnaldoren askatasuna eta Euskal Herriak
politika egiteko izan behar duen eskubidea es-
katzeko, aurreko larunbatean Elgoibarren egin-
dako manifestazioan parte hartu zuten guztiei
eta laguntzaile izan genituen guztiei eskerrak
eman nahi dizkiegu lerro hauen bidez.

Eskerrak, lehenik, ekintza horretara hurre-
ratu zineten herritarroi, herri honek bakea lor-
tzen duenean zeuei esker ere izango delako.
Eskerrak, era berean, Elgoibarko Lagun Talde-
ko txirrindularitza arduradunei eta Gipuzkoako
federazioari, egun horretarako aurreikusita zu-
ten proba atzeratu zutelako. Baita Elgoibarko
Club Deportiboari ere, futboleko gauza bera
egin zuelako. Eskerrak, halaber, Udalarri eta
udaltzaingoari, trafiko arazoak ekiditeko egin-
dako ahaleginagatik.

**Arnaldo askatu, politika askatu
herri ekimena**

JENDETZA OTEGIREN ALDE



Jendetza handia batu zen zapatuan Elgoibarren Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak deitutako manifestazio nazionalan. Ezker abertzaleko, Aralarreko, EA-ko eta Alternatibako ordezkari-erantzuek gain, LAB, STEE-EILAS, Hiru, eta EHNE sindikatu eta kultur eragileetako hainbat lagun ezagunek ere parte hartu zuten, ehunka herritarrekin batera.

Ainara Aigoitia

Elgoibarren aspaldian egin den manifestazio handiena izan zen zapatukoa. Arnaldo Otegi berehala aske lagatzeko eta Euskal Herrian politika libreki egin ahal izateko eskubidea aldarrikatu zituzten Arnaldo askatu, politika askatu plataformaren deialdiarekin bat egin zutenek.

17:30ak pasatxoan abiatu zen manifestazioa Plaza Handitik. Manifestazio buruan, eta pankartari eusten, plataformako kideak joan ziren, eta haien atzetik, alderdi politikotako eta sindikatuotako ordezkariak eta jende uholde bat, tartean Arnaldo Otegi beraren senideak eta ezagun ugari. Manifestazioan izan ziren, besteak beste, Jone Goirizelaia, Karmelo Landa, Niko Moreno, Tasio Erkizia, Rufi Etxebarria, Txelui Moreno, Arantxa Urkaregi eta Ino Galparsoro ezker abertzalekoak, Peio Urizar eta Rafa Larreina Eusko Alkartasunakoak, Oskar Matute Alternatibakoa, Asier Iturriagaetxeberria Aralarrekoa, eta Iñaki Zabaleta EHUKo irakaslea eta legez kanpo lagatako Sortu alderdiaren sustatzaileetako bat. Horiez gain, manifestazioarekin bat egin zuten alderdi politikotako Elgoibar-ko udal ordezkariak ere izan ziren. Politikariez gain, baina, jende ezagun ugari parte hartu

zuen: Iñaki Lazarobaster Gipuzkoako EHNEko lehendakariak, Antoni Batista Kataluniako *La Vanguardia* egunkariako kazetari eta idazleak, Martxelo Otamendi *BERRIA*ko zuzendariak, Hasier Etxebarria, Eider Rodriguez eta Lander Garro idazleak, Fermin Murguruza abeslariak, eta Unai Iturriaga eta Miren Amuriza bertsolariek, besteak beste.

Ibilbidean zehar *euskal presoak etxera; presoak kalera, amnistia osoa eta independentzia* bezalako oihuak entzun ziren, baina denen gainetik lelo bat nabarmendu zen manifestazio burua Plaza Handira itzuli zen bi-

tartean: *Arnaldo askatu*. Bukaerako ekitaldian, Asier Zengotitak hartu zuen hitza plataformako izenean, eta Otegi bera eta herriko gainerako presoak izan zituen gogoan. Ondoren, manifestazioarekin bat egin zuten alderdietako ordezkarien txanda iritsi zen. Otegiarekin egindako “injustizia” eta “mendeku politikoa” salatu eta bakerako bidean urratsak egiteko aukera alferrik ez galtzeko eskatu zuten Peio Urizarrek, Tasio Erkiziak, Oskar Matutek eta Izaskun Soraluzek. Bukatzeko, Otegi berak kartzelatik bidalitako gutuna irakurri zuen Iñaki Odriozolak.



Peio Urizar hizketan, eta atzean Oskar Matute, Izaskun Soraluze eta Tasio Erkizia zain.



Zergatik egin duzu bat Arnaldo Otegiaren aldeko manifestazio nazionalarekin? _____

MARTXELO OTAMENDI
BERRIA-KO ZUZENDARIA



“Iruditzen zaidalako injustizia handi bat egin dutela Arnaldo Otegiarekin. Preso guztiak presoak dira, baina Arnaldo preso enblematiko bat da, eta ez dute arrazoirik badaezpadako kartzelaldia betetzen izateko. Mendeku politiko bat ari da jasaten, eta hori salatzeraz etorri naiz”.

FERMIN MUÇURUZA
ABESLARIA

“Arnaldo Otegi libre lagatzeko aldarrikatzera, eta iruditzen zaidalako lotsagarria dela hau. Hasieratik inplikatu naiz asko Elgoibarko Arnaldoren aldeko plataformarekin, eta Arnaldo Otegiarekin hitz egiteko aukera ere izan nuen telefonoz. Suposatzen dut grabatuta egongo dela elkarrizketa hori, eta gero *El Mundok* erabiliko duela auskalo zer esateko. Bake prozesu hau aurrera eramateko, eta gainerako preso guztiak lehenbailehen libre utzi ditzaten, beharrezkoa dugu Arnaldo Otegi kalean izatea”.



ANTONI BATISTA
‘LA VANGUARDIA’-KO KAZETARIA



“Arnaldo Otegi kalean egon behar duelako. Arnaldori egindako elkarrizketa bat argitaratu nuen *La Vanguardian*, Lizarrako Akordioaren garaian, eta, orduetik, kazetari eta informazio iturri baten arteko harreman ona izan dut berarekin, errespetuzkoa eta hitzekoa. Arazo demokratiko baten aurrean gaude, eta ez bakarrik Euskal Herriari dagokionean. Nik uste dut Arnaldo Otegi libre utziko dutela luze ez dela, eta iruditzen zait, era berean, Arnaldo Otegi ibilbide politiko luzea duela egiteko, egin duena baino are luzeagoa. Otegi ez da edonor”.

Arnaldo Otegi Logroñoeko kartzelatik bidalitako eskutitza

Kaixo, lagunak:

Ezer baino lehenago, hor bildu zareten herritarrak, euskal preso politikoen senitartekoak, erakunde politiko, sozial eta sindikatueta kideak... har ezazue besarkadarik beroena Logroñoeko espetxean bahiturik gauzkaten euskal preso politikoen partetik. (...) Gaur, (...) etsipena hedatuta denean, zera esan nahi dizuet: zailtasun guztien gainetik eta herri honekiko duen bere konpromisoagatik, ezker abertzaleak berriz ere piztuko duela ilusioa Euskal Herrian, eta egin beharreako egingo duela, behingoz askatasuna eta bakea lortzeko.

Hiru urte pasa dira, eta gaur esan dezakegu orduan hasitako bidea lehen fruituak ematen hasia dela Euskal Herrian, ezker abertzaleak burututako estrategia aldatetari esker, hein handi batean. Bai, horrela da; estrategia aldatzea erabaki dugu, eta apustu hori egiteko arrazoiak nabarmenak dira guretzat. Nire ustez, estrategia aldatzeko zegoen arrazoi nagusia zera zen: Lizarra-Garazitik hona, Euskal Herrian aldaketa politikorako baldintza guztiak daudela defendatu badugu, zergatik ez da aldaketa hori ematen?. Eta erantzuna garbia zen guretzat: baldintzak badaude, baina estrategia desegokia planteatzen dugu. Beraz, ardura besteengan jarri beharrea, geure buruari autokritika zorrotza eginez heldu genion eztabaidari (...). Izugarria da eginiko lana, berriz ere frogatu duzue gauza guztien gainetik, baldintza txarrenetan ere, zuentzat, guretzat, ez dagoela ezer garrantzitsua gure herriaren interesa baino. Beraz, gure oinarri sozial eta militantea txalotu eta zoriondu nahi dut. Erronkak eskatzen zuen mailan zaudete, eta horrek konfiantza eta indarra ematen dizkigu etorkizunari aurrez aurre begiratzeko.

Bai, badakit. Gure oraingo egoera hau ezker abertzalearen kontra izan duten eta duten jazarpen estrategia horren barruan ulertu behar dela diote zenbaitzuek (hain justu ere, gure atxilotekin aldaketa

estrategiko hori oztopatzen saiatu ziren horiek). Eta hala, “kartzelatutako eta armarik gabeko” ezker abertzale batek, politikoki garaitutako eta gizarteak baztertutako ezker abertzale batek ez du bere estrategia aldatzea besterik; halaxe pentsatuko dute: Azken batean, Estatuak irabazi egin du, eta gu garaituak izan gara!. Eta hori baldin bada, egiaz, benetako egoera, zergatik daude haserre? Zergatik daude gero eta ernegatuago? (...) Bada, behin eta berriz ezker abertzaleari bonbak laga eta botoaren alde egiteko esanez ibili zaizkionean, orain, derrigortuta sentitzen direlako ezkerreko hautagaiak hauteskundeetatik kanpo lagatzera eta ETAK etorkizunean egingo dituen ekintzak asmatzera, noiz eta erakunde horrek su-etena emana duenean. Arrazoi bakarra topatzen dut nik: ezkerreko herri abertzalearen indarraren beldur dira. Halaxe zioen Gregorio Peces Barba PSOEko agintari historiko eta Konstituzioaren aitak *El Paisen*: “Ez diot gezurririk esango neure buruari. Ezker abertzaleko hauek ez dira beste batzuen modukoak. Hauek ez dute Espainiaz ezer jakin nahi; alde egin nahi dute, ospa egin nahi dute, eta ezin gara engainatu: arazo politiko larri bat dugu hauekin, zeina demokratikoki konpondu behar dugun. Hori bai, eurek demokratikoki irabazten badigute, bada irabazi egin dute.”

Bada hori da benetan jakin eta pentsatzen dutena. Badakite esparru demokratiko soilean independentistak baino askoz ahulagoak direla. Horregatik, eta beti bezala, eguneroko zailtasun eta zurrunbilitik haratago, argi luzeak piztu beharrea gaude: Helburua, hauxe: Euskal estatua. Bidea, beste hau: antolakuntza eta borrokaren bidez gehiengo zabal eta demokratikoak osatzea, estatuaren kontrako konfrontazio demokratikoa bideratuz.

Hori da apustua, eta ongi goaz bidean aurrera. Animo, Euskal Herria! (...)

Eskutitz osoa www.ElgoiBARREN.net-en

KARMELO LANDA

EHU-KO IRAKASLEA


“Euskaldunok eskubidea dugulako gure bizitza politikoa askatasunean antolatzeko eta bakean bizitzeko, eta ziklo berri honetan ezinbestekoa dugulako hori. Arnaldo Otegi eta berarekin kartzelan daudenak libre utzi behar dira berehala, preso politiko eta kontzientzia presoak direlako. Ni neu egon naiz Arnaldoren egoera berean orain urtebete, eta helegite bat bidali nuen NBEra. Handik erantzun zidaten arrazoia neukala eta Estatu Espainolak libre utzi behar ninduela, preso politiko

eta kontzientzia presoan nintzelako. Horregatik, logikak esaten du Arnaldo eta besteek kalean behar dutela, epaitu ere ez dituztelako egin. Hori dela eta, lehenbailehen Arnaldo Otegi kalean jartzea exijitzen dut”.



MIREN AMURIZA

BERTSOLARIA



“Nik uste dut gaur denok gaudela hemen arrazoi beragatik. Arnaldo Otegiaren izena da gaur hemen gehien aipatzen dena, baina denok ditugu buruan bera eta barruan dauden beste denak. Bizi dugun sasoi honetan zer hona etorri eta hau dena salatzea baino gutxiago!”.

HASIER ETXEBERRIA


IDAZLEA

“Gutziz antidemokratikoa da egiten ari direna. Oinarrizko eskubide batzuek zapaldu dituzte. Gainera, Arnaldo herrikoa izanda, nirekin eskolan ibilitakoa izanda eta elkar ezagututa ulertezina egiten zait. Gehiago ere esan daiteke, egoera politikoan honek zer esan nahi duen eta abar, baina uste dut ez duela merezi”.



Luis Alberto Hernando eta Maite Maiora garaile, Mendaron

Luis Alberto Hernando (1:57:18) eta Maite Maiora (2:23:43) nagusitu ziren domekan Mendaron jokatu zen Mendiko I. Lasterketan. 50 lagunek bukatu zuten 25 kilometrotako ibilbidea. Hasieratik, Luis Alberto Fernando joan zen lasterketa buruan. Iaz, munduko mendi lasterketen txapelketako Giir di Mont proban, bigarren egin zuen Hernandok, Kilian Jorneten atzetik. Emakumezkoetan, fin aritu zen Maite Maiora, eta txalo zaparrada handia jaso zuen bukaeran. Iñigo Lariz elgoibartarra, berriz, laugarrena izan zen helmugaratzen (2:09:23), Igon Mancisidorren eta Ibai Albaren atzetik, eta Ion Revert (2:13:01) izan zen lehen mendaroarra. Argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net-en.




Maite Maiora, lehenengo emakumezkoa.




Revert eta Conde, tropela atzetik dutela.



Luis Alberto Hernando, probako irabazlea.



Igor Rey mendaroarra.



Ines Arreitunandia, aldatz gora.



Iñigo Lariz (ezkerrean), ahalegin betean.



Sarituak, Iruñe Berasaluze Mendaroko alkatearekin eta Ander Zulaika MTEko presidentarekin.

Osama Bin Laden Al Kaedako burua hil dutela zabaldu du Estatu Batuetako Gobernuak.

Nola hartu duzu Bin Ladenen heriotzari buruzko berria?



Javi Martinez
30 urte, komertziala

Gezur galanta da hori! Gerran gastatu duten dirutza guztia justifikatzeko zerbait asmatu behar zuten, eta Bin Laden hil dutela zabaldu dute. Erakutsi duten argazkia ere lotsagarria da. Eta gorpua itsasora bota duten kontu hori... Bin Laden ez dute sekula santan harrapatuko.



Itziar Gurbindo
27 urte, ikaslea

Ez dut sinisten albiste hori. Erakutsi duten argazkia bera ere trukatuta dago, eta nola sinistuko dut bada!. Aurrez ere entzun izan dugu hil dutela. Asmakizun bat da dena. Gainera, egia baldin bada, ez zait ondo iruditzen egin dutena. Epaitu ere ez dute egin eta!



Frantxi Murillo
32 urte, osasun arloko komertziala

Egia esan behar badizut, ez dit gehiegi ardura gai honek. Bin Laden hil dutela zabaldu dute, eta egia izango da ziurrenik, baina, hala ere, ez zait zuzena iruditzen egin dutena. Inork ez dauka beste norbait hiltzeko eskubiderik, ez han eta ezta hemen ere. Betiko kontua da hori.



Asier Etxeberria
32 urte, garraiolaria

Irratian entzun dut Barack Obama AEBetako presidentea agindu zuela azkenean Bin Laden hiltzea, eta oso gogorra egin zait hiltzera joan zirela entzute hori. Benetan gaizkilea bada, atxilotu eta epaitu egin beharko lukete, gainerako guztiak egin beharko luketen bezala.

■ SEMAFOROA




Giza Eskubideen parkeko iturria ez dago baxterre ondo: "Giza Eskubideen parkeko iturria ataskatuta egoten da askotan, eta ur putzu handiak egiten dira iturri inguruan. Ume asko ibiltzen dira han inguruan jolasean, eta blai eginda bukatzen dute. Gainera, txakur pila bat ibiltzen dira han ura edaten, eta ez da baterre higienikoa. Udalari iturri hori txukuntzeko eskatzen diogu".



Txankakuako bide-gurutzean ez da udaltzainik egoten eguerdian: "Txankakuako bide-gurutzea autoz gainezka egoten da eguerdi aldean, eta ez da udaltzainik egoten. Goizean bezalaxe egoten da ingurune hori eguerdian ere. Urasanditik irteten diren autoak Txankakuara joan behar dute buelta emateko, eta Santa Klaratik datozen autoek zain egon behar izaten dute. Ondorioz, sekulako auto ilarrak sortzen dira. Bi irtenbide ikusten dizkiot egoera honi: udaltzaina jartzea edo errotanda biribila egitea. Nire ustez, bigarren aukera hobea da".

Herriko berdeguneetako lorak kendu dituzte: "Ez dut ulertzen zergatik kentzen dituzten herriko berdeguneetako lorak. Kontratatutako enpresaren soldata justifikatzeko ote da? Lorak eder-ederrak zeuden oraindik, eta denak kendu dituzte. Beste herri batzuetan herriarrei oparitzen dizkiete lorak, baina hemen ez. Horrez gain, berdegune askotan tulipanak jartzen dituzte, eta hori hau ez dela tulipanentzako lekuri aproposena. Berehala hiltzen dira, eta lora berriak jarri beharra egoten da. Berdeguneak politikak egotea gustatzen zaigu denoi, baina gastuak gutxitu egin behar dira".



Zuen kezak, galderak edo txankak bidaltzeko:
barren@elgoibarkeizarra.com 943 744 112

Elgoibartarrek energia fotovoltaikoan inbertitzeko aukera izango dute

Energia garbia sortzeko interesa dutenek astelehenean egin zuten bilera

Energia garbia sortzeko interesa duten elgoibartarrek bilera egin zuten astelehenean, Kultur Etxean. Izan ere, elgoibartarrek energia fotovoltaikoan inbertitzeko aukera izango dute, Herri Eskolan eta Mintxetan jarri dituzten plaka fotovoltaikoen bidez. Egindako aurreikuspenen arabera, bi instalazio horiek urtean 46.406 kilowatio sortzeko gaitasuna izango dute. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak eta Javier Zarraonandia Ingurumeneko foru zuzendariak eman zuten ekimen aitzindari honen azalpena. Foru Aldundi-koek esandakoaren arabera, ekimen honetan parte hartzeko interesatuek 800 euro inguruko inbertsioa egin beharko dute plakak lortzeko. Sortutako energia hori Iberdrolak erosiko du, eta hilerdi ordainduko dio Elgoibarko Udalarai energia horren



ordaina; Hala, Udala izango da gero inbertsore bakoitzari partaidetzaren arabera dagokiona ordainduko diona. Aurreikusten den batezbesteko errentagarritasuna %6 eta %7 artekoa da. Horrez gain, inbertsoreek beste abantaila fiskal batzuk ere

izango dituzte, besteak beste, errenta aitortopenean %15eko kenketa eta amortizazio askatasuna izango dute. Ekimen honen inguruko informazio gehiago jaso nahi duenak 900 845 044 telefonora deitu dezake.

Janaria eta konpresak batzeko kanpaina hasi dute, Sahararen alde

Mendebaldeko Saharako biztanleei laguntzeko janari eta konpresa bilketa egingo du Sahararen Aldeko Euskal Elkarten Koordinakundeak, *Piztu itxaropena* lemapean. Maiatzaren 9tik 14ra bitartean, konpresez gain ondorengo elikagaiak jasoko dituzte: arroza, atuna eta sardinak oliotan, azukrea, lekaleak eta pasta. Produktu horiek Santa Ana eta Bernardo Ezenarro kaleetako Eroski supermerkatuetan eta Netton laga daitezke.



Debabarreneko Emakumeen Topaketa Interkulturala, bihar, Kultur Etxean

Debabarreneko emakumeen lehen topaketa interkulturala egingo dute bihar, Elgoibarren. 9:30etik 13:30era egingo dira jardunaldiak, Kultur Etxean. Debegesak esandakoaren arabera, etorkinen harrera hobetzea, integrazio soziala hobetzea eta elkarbizitza sustatzea dira topaketaren helburuak.

Jardunaldia bi zatitan banatu dute.

Lehenengo zatian, emakume etorkinek, hemen bertako emakumeek eta jatorri mistoa duten emakumeek osatutako lau elkartetako kideek hitz egingo dute, euren helburuak eta ekintza esparruak azaltzeko: Haizea (Elgoibarko emakumeen taldea), Safa (Eibarko arabiar-musulman emakumeen elkarte), Lacasiun (Eibarko emakume latindarren elkarte)

eta Garaipen (Errearteria-Donostiako emakume immigrante eta euskaldunen elkarte). Bigarren zatian, berriz, kafe tertulia egingo dute *Emakumeen bilgunez gogoeta* lelopean.

Ekitaldia Debegesak antolatu du, Eusko Jaurlaritzarekin batera, eta eskualdeko Udaletako berdintasun eta integrazio agenteekin elkarlanean.

Udal Hauteskundeak



Artean hauteskundeetan egoterik izango zuten argitu gabe bazegoen ere, Bildu koalizioak Elgoibarren eta Mendaron aurkeztu-ko dituen lan taldeak aurkeztu zituen. Zapatu goizean egin zuten aurkezpena Mendarokoek, Espainiako Auzitegi Gorenak zerrenda guztiak baliogabetu bezperan, eta eguazten iluntzean Elgoibarkoek. Taldeko argazkia ateratzeaz gain, hauteskundeetarako programa aurkeztu zuen Elgoibarko Bilduk. Prentsaurrekoan, Jose Luis Ibarzabal alkategaiak eta Jon Peli Uriguen, Iñigo Cearsolo, Marijo Garmendia, Ainhoa Mendibil eta Ander Soraluze zerrendakideek programako gai nagusiak azaldu zituzten, banan-banan.

Irudia Bilduren aldeko kontzentrazioa



Bildu koalizioak hauteskundeetan egon behar duela aldarrikatzeko kontzentrazioak egin dira asteon Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarko Plaza Handian batu zirenek ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten parrokia aurrean, legez kanporatzeen kontra. Espainiako Auzitegi Gorenak Bilduren zerrenda guztiak baliogabetu zituen, eta BARREN astekaria inprimategira bidali zen unean, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak hartu gabe zeukan artean azken erabakia.

Leonera irteera antolatu du Haizeak hil bukaerarako

Leonera irteera antolatu du Haizea emakume taldeak maiatzeko azkeneko astebukaerarako. Hilaren 28an irtengo dira, 7:00etan, eta Leon eta Astorga bisitatu ondoren, Castrillo de Polvazaresen bazkalduko dute. Bazkideek 150 euro ordaindu behar-ko dituzte, eta bazkide ez direnek, 160 euro. Interesatuak Pitxintxun eman dezakete izena.

2011ko danborradako kartela egiteko lehiaketa

Kultura Batzordeak lehiaketa antolatu du, Trinitateetako danborrada iragartzeko kartela aukeratzeko. Lanak Kultur Etxean aurkeztu behar dira, hilaren 20rako, eta kartelean honako testu honek agertu behar-ko du derrigor: *Elgoibarko danborrada 2011. Ekainaren 18an, gaueko 23:30ean.* Informazio gehiagorako, deitu Kultura Sailera.

Asteburuan ospatuko dituzte galiziarren jaiak

Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera izango da

Gaur iluntzean hasiko dira Las Letras Galegas, eta domekara bitartean, denetariko ekintzak antolatu ditu Galizia Etxeak. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak eta Ovidio Campello Galizia Etxeko lehendakariak inauguratuko dituzte jaiak gaur, 19:30ean. Urtero bezala, Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera eskainiko dute, olagarroa eta ardoa, bereziki. Musika, dantza saioak eta Queimada egingo dituzte, besteak beste, asteburuan zehar. Egitarau guztia agendan ikus daiteke.



Koldo Etxebarriaren margo erakusketa hilaren 22ra arte egongo da ikusgai



Koldo Etxebarria margolariaren *Izatearen isiltasuna* erakusketa inauguratu zuten joan zen ostiralean Kultur Etxean, eta maiatzaren 22ra arte egongo da ikusgai. Gizakiaren kontenplazioa eta edertasun metafisikoa jaso ditu bere obretan. Dimensio horri gizakiaren barnealdean kokatzen du egileak. Isilik eta kontenplazio egoeran ageri den gizakia da erakusketako protagonista. As-telehenetik zapatura egongo da zabalik erakusketa, 19:00etatik 21:00etara.

Daniel Monzonen 'Celda 211' filma izan da Herriko Antzokiko filmik ikusiena 2010. urtean

Udaleko Kultura Saitetik emandako datuen arabera, *Celda 211* izan zen Herriko Antzokira ikusle gehien eraman zituen filma 2010ean. 443 lagunek ikusi zuten Elgoibarren 2010eko Goya Sarietan nagusitu zen pelikula. Bigarren lekuan geratu da *Avatar*, 387 ikuslerekin, eta *Tiana y el sapo* izan da hirugarrena, 267rekin. Iaz 9.161 zine ikusle pasatu ziren Herriko Antzokitik, eta bildutako diru kopurua 34.729 eurokoa izan zen guztira. 2009. urteko datuekin konparatuta (10.525), Herriko Antzokiko ikusleen kopuruak behera egin du 2010ean (9.161), baina 2008ko datuak (7.999) baino hobeak izan dira.



Atxutxiamaikaren udalekuetan izena emateko epea zabalik dago

Atxutxiamaiaka aisialdi taldeak udaleku itxiak eta irekiak antolatu ditu. Udaleku itxietan bi txanda egongo dira aukeran, eta plazak zozketa bidez banatuko dituzte. Izena emateko azken eguna maiatzaren 13a izango da, eta zozketa hilaren 17an egingo dute, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Zozketa horretan Elgoibarko Izarrako bazkideek izango dute lehentasuna, ondoren elgoibartarrek eta azkenik, kanpokoek. Udaleku irekietan, bestalde, hiru txanda egongo dira aurten. Interesatuak hilaren 20ra arte dute izena emateko epea. Informazio gehiago eskuratzeko Elgoibarko Izarra kultur elkartera deitu daiteke: 943 741 626 (Naiara Martin).

'Apur batean soka dantza', Nafarroako unibertsitatean

Iñaki San Martin Soarte argazkilaria *Apur batean soka dantza* erakusketa Nafarroako unibertsitatean jarri dute ikusgai. Bi urtez egindako erretratu bildumak osatzen du erakusketa, eta San Bartolome egunean egiten den soka dantza da protagonista. Maiatzaren 23ra arte egongo da ikusgai elgoibartarraren lana.



Akuarela tailerra

Egur arte eskolak akuarela ikastaroa eskainiko du maiatzaren 9tik ekainaren 1era. 30 orduko ikastaroa izango da, eta astelehenetik eguenera eskainiko dira klaseak. Informazio gehiagorako 666 557 538 telefonora deitu.

Laudioren kontra galdu ostean, larri ibiliko da CD Elgoibar mailari eusteko

Bi jardunaldi bakarrik falta dira liga amaitzeko

Hirugarren mailari eusteko hil ala biziko partida jokatu zuen CD Elgoibarrek joan zen domekan Laudioren kontra, eta Loiolaren mutilek 0-2 galdu zuten etxean. Haundi 18. postuan dago, 33 punturekin. Aurretik Santurtzi dago 36 punturekin; Eibarrek 38 ditu, eta Zarautzek, berriz, 39. Bi partida falta dira liga amaitzeko, eta Haundik biak irabazi behar ditu, eta gainera, bere aurretik dauden taldeek galdu egin beharko luke. Datorren jardunaldian Azpeitiko Lagun Onak taldearen kontra jokatuko du, eta azken jardunaldian Portugalete taldeak jokatuko du Mintxetan.



Igoera faseko lehen postuan dago Alkorta

Alkorta senior mutilen taldeak 21-20 irabazi zion joan zen astean Lezamari, eta une honetan goiera faseko sailkapen nagusiko lehen postuan daude elgoibartarrak. Igoera faseko bigarren itzulia hasiko da asteburuan, eta Alkortak etxean jokatuko du, Egiaren kontra.

Nesketan, jubenetako Grupo Eibar taldeak, bestalde, Espainiako txapelketa ligaxka jokatu du asteburu honetan Palentzian, baina ez du lortu finalerako sailkatzea. Sanloko arduradunek, dena den, zorionak eman dizkiete taldekide guztiei egindako denboraldi 'bikainagatik' eta Euskadiko Txapelketa irabazteagatik.

Joseba Elustondok eta Arkaitz Iruretak Alpeetako Mezzalama eski proban hartu dute parte



Joseba Elustondok eta Arkaitz Iruretak Alpeetako Mezzalama eski proban hartu zuten parte. Hirugarren tal-

dekidea Gasteizko Javi Dominguez izan zen. Italian izan zen lasterketa, Breuil-Cerviniatik hasi eta Gressoney-raino, eta tartean, 4.000 metroko bi mendi tontor gainditu behar izan zituzten partaideek. 43 kilometroko lasterketa hau mendiko eskian egiten den garrantzitsuenetarikoa da. 405 taldek hartu zuten parte, 1.200 pertsona inguruk, baina herenak ere ez ziren helmugara iritsi. Elgoibartarrek lasterketa amaitzea lortu zuten, eta 'pozik' itzuli dira.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Laudio 2 (3. maila)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Soraluze 17 – Elgoibar 22 (Kad.)

Soraluze 2 – Elgoibar 22 (Jub.)

Soraluze 22 – Elgoibar 11 (Nag.)

Debarroko Txapelketa

Lagunak 5 – Ozkarbi 22 (Nag.)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 21 – Lezama 20 (Sen. mut.)

Urnietako 21 – IMH Elg. 22 (Kad. nesk.)

Sanlo Elg. 19 – Valencia 18 (Benj. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 8

9:30 King-Kong Elg. – Gamon (Jub. mut.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 7

11:45 Astigarraga Elg. – Ereintza (Inf. nesk.)

16:00 IMH Elg. – Aiala (Kad. nesk.)

17:30 Lauko Elg. – Ereintza (Kad. nesk.)

19:00 Alkorta Elg. – Egia (Sen. mut.)

Domeka, 8

10:45 Bankoa Elg. – Amenabar (Kad. mut.)

12:15 Grupo Eibar Elg. – Aiala (Jub. nesk.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 7

13:00 Elgoibar – Zumaia (Ohorezko inf.)

16:30 Elgoibar – Orioko (Erreg. pref.)

Domeka, 8

12:00 Elgoibar – Ikasberri (Kad. B)

ESKU PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barvakua, 6

20:45 Elgoibar – Soraluze (Herriarteko txap.)

Domeka, 8

11:00 Lagunak – Beloki (Nag.)

11:45 Lagunak – Arrasate (Nag.)

12:30 Lagunak – Eibar (Nag.)

Herriarteko pilota txapelketa irabaziz hasi du Elgoibarrek

Soraluzeren kontra jokatu du Elgoibarrek Herriarteko Txapelketako lehen kanporaketa, eta 1-2 irabazi zuten Lagunak taldekoek. Nagusiek galdu arren, kadeteen eta jubenilen garaipenekin abantaila lortu dute elgoibartarrek lehen kanporaketan. Itzuliko partidak etxean, Ikastolako frontoian, jokatuko dituzte gaur gaur.

LANA

ESKAERA

• Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. Abuztuan interna moduan aritzeko prest.

☎ **646 977 562**

• Gizona edozein lan egiteko prest. Baserrian ere lan egingo nuke.

☎ **6685 212 060**

• Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan.

☎ **618 163 061**

• Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.

☎ **626 490 986**

• Emakumea orduka lan egiteko prest.

☎ **646 464 300**

• Emakumea umeak edo helduak zaintzeko prest. Esperientziaduna.

☎ **616 690 415**

• Gizonezkoa eraikuntzan edo baserrian lan egiteko prest.

☎ **680 212 060**

• Emakumea garbiketa lanak egin edo tabernan lan egiteko prest. Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke.

☎ **609 148 861**

• Emakume gaztea pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egingo nituzke.

☎ **608 474 923**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka.

☎ **635 313 375**

• Esperientziadun emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko.

☎ **626 914 904**

• Nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke.

☎ **663 115 241 (Bebay)**

• Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan.

☎ **648 736 067**

• Gizona txofer lanetarako prest. B1 gidabaimena daukat.

☎ **650 538 274**

• Esperientziadun neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko.

☎ **648 603 029**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka.

☎ **680 808 125**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka.

☎ **660 651 569**

• Mutila lanerako prest. Nagusiak zaintzen, mezulari edo bestelako lanen batean ariko nintzateke.

☎ **682 384 433**

• Neska lanerako prest. Garbiketa lanak egin edo nagusiak edo umeak zainduko nituzke, interna edo orduka.

☎ **646 821 678**

• Emakumea sukalde laguntzaile jarduteko, garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zaintzeko.

☎ **671 343 612 / 943 531 931**

ESKAITZA

• Zerbitzaria behar da, egun erdirako.

☎ **628 528 268**

• Emakume edo gizonezko euskalduna behar da Elgoibarko enpresa batean biltegiko lanak egiteko. Curriculumak bidali ondorengo helbidera:

kurrikulum@servicesmail.com

• Tabernarako zerbitzaria behar da.

☎ **943 741 600**

• Ingelesezko irakasle bila nabil. Klase partikularrak arratsaldez jaso nahi ditut. Ander. ☎ **669 645 514**.

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

• Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ **608 474 923**

• Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukaldea, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**

• Emakumeak bi logelako pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren.

☎ **626 641 318**

• Atikoa salgai Altzolan, Donostia kaleko 4an. 42.000 euro. Negoziagarria.

☎ **638 700 639**

• Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ **648 603 029**

• Conil. Pisua alokatzen da. Hiru logela eta garajearekin.

☎ **653 733 457**

• Pisua alokatzen dut Ramales herrian (Kantabria). Aste Santua eta opor denboraldietan. Txalet ederra dugu alokairuan.

☎ **653 733 457**

• Apartamentua alokatzen dut Mendaron. Altzariekin, dena kanpoaldera.

☎ **636 631 632**

GARAJEAK

• Bi garaje itxi saltzen dira Jausoro Plazan.

☎ **943 741 129**

BESTELAKOAK

• Diruzorroa aurkitu dut kiroldegi inguruan.

☎ **608 201 390**

• Auto kargatzailea salgai, kapotarekin. 350 kilokoa. Merkea.

☎ **639 933 281**

KINTOAK

50 urtekoen kinto bazkaria

Aurten 50 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute maiatzaren 21ean Sigma jatetxean. Bazkariaren prezioa 85 eurokoa da, luntxa barne. Interesatuek ondorengo Euskadiko Kutzako (Caja Laboral) kontu korrante zenbakian sartu dezakete dirua: 3035 0007 28 0071121811.

1951n jaiotako kinto bazkaria

1951n jaio eta aurten 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 28an, Itziarko Salegi jatetxean. Interesatuek bigarren ordainketa egin beharko dute, maiatzaren 20a baino lehen (75 euro). Euskadiko Kutzako (Caja Laboral) kontu korrante honetan sartu behar da dirua: 3035 0007 25 0071121796. Maiatzaren 28an 13:00etan batuko dira Jai-Alai tabernan, eta 14:00etan hartuko dute autobusa King-Kong-eko autobus geltokian. Informazio gehiago: 943 740 779 (Mari Carmen) / 943 741 186 (Jose Anjel).

1971n jaiotako kinto bazkaria

1971n jaiotako elgoibartarrek maiatzaren 14an egingo dute kinto bazkaria, eta eguerdiko 13:00etan jarri dute hitzordua, Madalan. Bazkaria 14:30ean izango da, Sigma jatetxean.



• Zorionak, **Hodei**, as-teartean 3 urtetxo bete zenituelako. Etxekoan partez, muxu asko.



• Zorionak, **Oihane**, zure lehen jaunartzeagatik. Ondo-ondo pasa eguna. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Aitor**, zure lehenengo jaunartzeagatik. Egun ona izan dezazula opa dizu familiak. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Unai** Igan-dean egun berezia daukazu! Goza ezazu! Maite zaitugu, zure familia.



• Zorionak, **Iker**, txapeldun, atzo 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat Andres, Rosa eta Arianeren partez.



• Zorionak, **Danel**, maiatzaren 4an 6 urte bete zenituelako. Aita, ama, Leire eta familia guztien partez.



• Zorionak, **Iosu**, igandearen 2 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Iker**, atzo 9 urte egin zenituelako. Etxekoan eta bereziki, Julen eta Asierren partez.



• Zorionak, **Unai**, Igan-dean 7 urte egingo dituzulako! Muxu handi bat familiakoan eta bereziki Martinen partez.



• Zorionak, **Olatz**, bihar 9 urte egingo dituzulako, Jon, Asier, Unai, Garazi, Elur, Aitor, Uxue eta amona Ankoraren partez.



• Zorionak, **Ane**, astelehenean 8 urte egin zenituelako. Familiakoan, eta bereziki, Malen partez.



• Zorionak **Saioa** sorgintxoari, Uxue, Jon, Nahia eta etxeko guztien partez.



• Zorionak **Sare eta Beñat**, zuen 2. eta 6. urtebetetzean. Muxu asko denon partez.



• Zorionak, **Beñat**, 5 urte egin dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Xabiren partez.



• Zorionak, **aitaxo**, ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Axularren eta Aitziberen partez.



• Zorionak, **Danel eta Helene!** Danel, ondo pasa igandearen zure jaunartze egunean. Helene, ondo ospatu zure 5. urtebetetzea.



• Zorionak, **bikote!** Egun ahaztezina izatea espero dugu. Ondo pasa! Muxu bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Paula**, asteazkenean urtebete egin zenuelako. Zorionak, **Julen**, gaur 2 urte egin dituzulako. Muxu handi bana, etxekoan partez.

BARREN astekarirako KAZETARIA BEHAR DA

ESKAINTZEN DA:

- Jardunaldi osoko kazetari lanpostua, amatasun baimena betetzeko.

ESKATZEN DA:

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Kazetaritza testuak idazteko gaitasuna.
- Lantaldean lan egiteko gaitasuna.
- Informatika ezagutzak: Quark Xpress.

BALORATUKO DA:

- Elgoibar edo ingurukoa izatea.

Interesatuak bidali curriculumua maiatzaren 18rako.

Elgoibarko Izarra - Ubitarte 4, behea, 20870 Elgoibar
Barren astekaria: barren@elgoibarkoizarra.com
Informazio gehiagorako: (943 744 112, Ainhoa)



- Gosariak
- Pintxoak
- Kaxolak

Zatoz nahi duzuna hartzera!

MERKATU PLAZAKO TABERNA BERRI ERE ZABALIK!!

6 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

7 zapatua

Ikastaroa

10:00 Janari makrobiotikoa

Haizeak antolatuta, Pedro

Muguruzako eskoletan.

Ikastaroa

10:00 Sukaldaritza energetikoa

Kemen belardendan. Ikastaro praktikoa izango da, goizez eta arratsaldez.

Topaketa

9:30 Debabarreneko

emakumeen topaketa

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

LETRAS GALEGAS 2011 (Plaza Txikian)

6 BARIXAKUA

19:30 Jaien inaugurazioa

Ondoren, Galizako jaki

tipikoen dastaketa

20:30 Dantzaldia

Nevada orkestrarekin.

23:00 Dantzaldia

Nevada orkestrarekin.

23:00 Dantzaldia

Nevada orkestrarekin.

00:00 Queimada

Ondoren, Dantzaldia

Nevada orkestrarekin.

8 DOMEKA

10:00 Meza

Hildako bazkideen omenez, Santa Klarako elizan.

11:30 Kalejira

Galizako Banda de Gaitas

Irixe taldearekin.

13:30 Dantza emanaldia

Galizako Banda de Gaitas

Irixe taldea.

14:30 Bazkaria

Galiza Kultur Elkartean.

7 ZAPATUA

11:00 Galizako jaki

tipikoen dastaketa

13:00 Vermut dantza

18:30 Euskal Herriko eta

Galizako dantzarien

ekitaldia

Haritz dantza taldea eta

Galizako Banda de Gaitas

Irixe.

20:00 Dantzaldia

Nevada orkestrarekin.



Maiatzaren 11n ERREALA-ZARAGOZA

ikustera joango gara Anoetara.

Irteera, Ludotekako LH3-6 bitarteko

bazkideentzat eta 1998an eta 1997an jaiotako

Gaztelekuko erabiltzaileentzat izango da.

Izenematea, maiatzaren 9ra arte



OKINDEGIA

8 domeka FOTERO

FARMAZIAK (24 orduz)

- 6 Zabaleta
- 7 Etxeberria (Errosario)
- 8 Etxeberria (Errosario)
- 9 Ibañez
- 10 Garitaonandia-Bidasolo
- 11 Etxeberria (Santa Ana)
- 12 Fernandez
- 13 Yudego

Fernandez - Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta - Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Cisne negro»

6, barixakua: 22:15

7, zapatua: 19:00/22:15

8, domeka: 19:00

9, astelehena: 21:30



«Cisne negro» Zuzendaria: Darren Aronofsky. EEBB, 2010. Iraupena: 110 min. Generoa: Drama, thriller psikologikoa. Aktoreak: Natalie Portman, Vincent Cassel, Mila Kunis, Barbara Hershey, Winona Ryder. Nina dantza talde bateko kidea da. «El lago de los cisnes» obra egin behar dute, eta dantzari nagusia aldatzea erabakiko du zuzendariak. Nina aukeratuko dute, baina honek lehia bizia izango du Lilyrekin, taldera iritsi berria den dantzariarekin, alegia. Nina amarekin bizi da, gaztetan dantzaria izan zen bera ere, eta erabat babesten du alabaren lanbidea. Hala ere, dantzak eskatzen dion sakrifizioaren ondorioz, amarekin ere tirabirak izango ditu Ninak.

ESKERTZA

SALVADOR CELAYA IBARLUCEA



2011ko maiatzaren 2an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





% 100erainoko FINANTZAKETA ESKAINTZEN DUGU AZKEN ETXEBIZITZAK MENDARON

- ◆ **2 eta 3 logelako pisuak eta duplexak**
- ◆ **Material bikaineko etxebizitzak**
- ◆ **Horma-armairuak**
- ◆ **Sukaldea hornitua**
- ◆ **Abantaila fiskalak: B.E.Z.-ik gabe (OTZ %2,5 edo %4)**
- ◆ **Prezioak: 193.300 eurotik aurrera (prezio barnean etxebizitza, trastelekua eta garajea)**

**Gure etxebizitzetako bat erosten baduzu, logela nagusiko altzariak
oparituko dizkizugu edota txeke opari bat bestela**

Eska ezazu etxebizitzeari buruzko informazioa:

Gure telefono zenbakian: 943 249 516

Web orrian: www.aiksa.com

edota gure bulegoan: Easo kalea 8, 20006 Donostia





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata, makrobiotika eta P.N.L. kontsultak, ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29- Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

15-16:30

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriren egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869

